

ITZIAR LAKA

Deskribapena: Makina mota desberdinen imajinak ageri dira lehenengo, idazteko makina, hondeamakina, ordenagailuak eta orkestra bat ondoren, garunaren marrazkiekin amaituz azkenik.

Kike (off ahotsa): Makinek edozer gauza sortzeko balio dute, baita gauzak suntsitzeko ere! Sortu edo suntsitu, dudarik gabe, makinek bizitza erraztu egin digute. Beraiekin orkestra bat eta guzti osatu dezakegu baina pertsonak osaturiko orkestra batek beste sentsibilitate bat duela ezin ukatu! Eta nondik datorkigu makinek ez duten ukitu berezi hori? Ezagutzen den garunik garatuenaren jabe izateak edukiko du zerikusirik! Hala ere, garun alfer xamarrak egon badaude.

Deskribapena: Kike kaskezur batekin ageri da kalean exerita hizketan “garuna” hitza ondoan duelarik.

Kike: “Kaskezurrean dagoen garuna alferra edo langilea izan era guztietako funtzioak betetzen ditu eta horietako bat hizkuntzaren kontrola izatea da. Eh? Hara! Honek dionez ez omen dago bat ere garbi gizakia noiz hasi zen hizketan baina aditu askok dionez duela hogeita hamar mila eta berrogei mila urte bitartean izan omen zen. Aizu, zenbat denbora daraman garun honek esaten duguna kontrolatzen, ezta? Baietz esan du!”

Deskribapena: Kike kaskezurrarekin badoa Euskal Herriko Unibertsitateko Rudolf de Rijk-en liburutegira Itziar Lakarekin hitz egiteko. Eta horretarako, kaskezurretik garuna ateratzen dute eta berarekin eskuan mintzatzen da Itziar.

Kike: “Itziar, esango al zeniguke non kokatzen den hizkuntza hemen, garunean?”

Itziar: “Bueno, asko dago ez dakiguna oraindik, eh? Baina dakizkigun apurrak kontatuko dizkizut. Badago hemen, ikusten duzu, zatitxo hau kentzen da eta hau, honi esaten zaio Silvioren fisura. Ikusten duzu hemen, tolesdurak barrurantz doaz. Eta hemen badira esparru bi guztiz interesgarriak direnak hizkuntzarako eta hizkuntza hor kokatzen da. Beste leku batzuetan ziurrenik ere bai. Bat izango litzateke hemen goian, inguru honetan, Broca esparrua deitzen diotena Broca neurologoaren omenez, berak aurkitu baitzuen hori eta hemen, hola gordina esateko, soinuak, gramatika-erregelak, holako gauzak kudeatzen ditugu. Eta hemen, beheraxeago badago beste neurologo baten izena daraman beste esparru bat, Wernicke esparrua esaten zaiola, eta hemen gordetzen ditugu hitzen formak eta nolabait hitz bila joaten garenean, hitzen formak, “txakur”en forma hemen gordeta dago.”

Kike: “Eta garunak nola gobernatzen du hizkuntza? Nola entzuten dugu? Nola ikasten dugu? Nola hitz egiten dugu?”

Itziar: “Burmuinak lan egiten duenean oxigeno pila bat behar du eta ordun odol pila ekartzen du lanean dabilen esparrura. Orduan neuro-irudi horiek erakusten digutena da, gauza askoren artean, zure burmuinak orain odol pila bat eramaten du hona, hain zuzen ere orain sartzen ari diren hitz eta perpausa guztiak ahalik eta azkarren, prozesatu eta ulertu ahal izateko.”

Kike: “Itziar eta hizkuntza nola ikasten dugu genetikoki edo kulturalki?”

Itziar: “Bistan da ez dala ehuneko ehun genetikoa ze ehuneko ehun genetikoa baldin balitz jaioko ginateke hitz egiten. Haur jaioko berriak ja hizkuntzaren bila jaiotzen dira eta hori berez, berez dator. Hori ez baldin badaukazu hor patologiarene bat daukazu seinale eta gero badakigu zeren bila goazen, hori ja markatuta dator. Umeak hasten dira lehenengo soinua bilatzen, egitura erritmikoa, gero joango dira soinu txikiak bilatzen, silabak eta segmentoak eta esan dezagun, hor jendea harritu egiten da ze goiz gertatzen dan hau guztia. Ume bat totalka hasi orduko, “ku,ma,ba,ba,ba” ume horrek dagoeneko badaki bere ama hizkuntzaren prosodiaren egitura nagusia zein dan, badaki bere ama hizkuntzaren fonemak zein diran eta totalka hasten direnean eta hori ja badakit orain praktikatzeko hasiko naiz. Eta izan ere, mundu guztiko ume guztiak totalka hasten dira soinu berberak erabiltzen eta total hori aurrera doan neurrian, hasten dira “ba,ba,ba, ma,” eta gero ja eleganteago hasten dira totalka, total hori zailago egiten da. Hor, umearen totalak ja jorratzen ditu bere hizkuntzako soinuak, hor ja munduko umeak bereizi egiten dira; Txinako ume batek garai hortan txinari dagozkion txinerari dagozkion soinuak jorratuko ditu eta euskaldun ume batek euskarari dagozkionak baina hasiera berdinean egiten dute.”